

KANALAK

Gure tupperrak erosteko errazak izango dira. Alde batetik gure interneteko teknikoak webgune bat sortuko duelako gure tupperrak eksklusiboki saltzeko. Behin tupperra webgunetik erosita bezeroak bidaltze-gastuak ordaindu beharko ditu, SEUR garraio enpresak inposatzen dituen. Garraio enpresa horretaz baliatuko gara bezeroak internetetik egindako eskakizunak haien etxeetara bidaltzeko. Bezeroak arazoren bat baldin badu produktuaren gure enpresarekin kontaktuan jarriko ahal da gure webgunean komentarioren bat eginez, enpresaren telefono zenbakira deituz edota gure mailera korreoren bat bidaliz. Behin gurekin kontaktuan egonda, bezeroak produktuarekin izandako arazoa azaldu beharko digu, guk ebaluatu dezagun arazoa gure errua den. Arazoa gure errua dela erabakitzen badugu, bezeroak produktua bueltatzeko eskubidea izango du, baina berriz ere SEUR garraio enpresaren garraio-gastuak ordaindu beharko ditu. Behin tupperra gure eskuetan dagoela bezeroari dirua bueltatuko diogu.



Bestalde, gure auzoko konfiantzako denda batekin akordio bat egin dugu. Bere dendan gure tupperrak saltzea ahalbidetzen diguna, baina irabazien %25a beraienezako dena. Denda horrek webgunea du eta gure produktuaren salmenta bultzatzeko beraien webgunean promozionatuko dute produktu berritzaile moduan. Dendan erositako tupperrekin arazoren bat baldin badago, bezeroek bueltatzeko ahalmena dute, beti ere erosketa ticketa aurkezten baldin badute. Dendariak ebaluatu

beharko du produktuak hasieratik arazo hori bazuen edo behin erositakoak bezelakoak egin duen.

